

GIZA PRESENTZIAREN ISLADA ARKITEKTOEN ADIERAZPENETAN

Tesiaren egilea: Marte Mujika Urteaga

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Arkitektura Saila

Tesi-zuzendaria: Miguel Garai Ormazabal

Tesiaren laburpena:

Tesia arkitektoen adierazpen grafikoek eragiten duten erakargarritasun subjektibo batean oinarritzen da: irudien asmo grafikoaren mailak erakarrita, adierazpenek eragiten duten eduki sakonaren intuizioari jarraituz eta egileen baitan dagoen ezagutza hori irakurri nahian; irudien aitzakian ager daitezkeen gai arkitektonikoen inguruko saiakera bezala. Edukia adierazpenen baitan dagoenez, tesiak erretorikaren akatsa izan badezake ere, XX. mendeko 9 arkitektoen adierazpen grafikoetan gordetzen diren esanahiak aztertu nahi dira.

Ikerketa iturri bibliografikotan oinarritzen da, edukiak giza presentziaren gaira mugatuz. Adierazpen grafiko arkitektonikoarekin harremanean dauden subjektuen inguruko gogoetatzat ere uler daiteke tesia.

Irudiek, definizioz suposatzen zaien begiralearengan, ez dute beti erreakzio bera eragiten: espazio piktorikoan sartzeko gaitasuna sentiarazten zaigu begiraleoi hainbat iruditan, eta espazio horren bisitari bilakatzen gara; beste irudi batzuetan ez da harremanik sortzen espazio piktorikoaren eta begiraleon espazioaren artean (egilearen begien bitartez, espazio piktorikoan gaude); azkenik, beste eredu batzuetan, espazio piktorikoaren eta begiraleon espazioaren arteko muga edo plano koadroa leiho bilakatzen da, eta gurea ez den espazio bateko biztanleak zelatazen ditugu.

Adierazpen grafiko arkitektonikoaren eremuan, tesiaren terminologiak izate errealak identifikatzen ditu: irudiaren begiralea, irudiaren egilea eta espazio piktorikoan adierazia agertzen den biztanlea.

Hiru presentzia horiek, proiektu arkitektonikoaren terminologian hiru subjektu generikorekin egokitzen dira:

1. Begiralearen presentzia barrutien gogoeta eta pertzeptzio espaziala eragin nahi denean nagusitzen da irudietan. Espazio piktorikoa ikusmenaren bidez begiralea bisitari bihurtzeko antolatzen da. Niaz ari gara.
2. Egilearen presentzia arkitektoaren pentsaera eraikiz egiten diren irudietan nagusitzen da. Borondate grafiko baten erradiografia bat dira. Arkitektoaz ari gara.

3. Biztanlearen presentzia agertzen da hiriaren gogoeta pertzeptzio espazialaren mekanismotik harago egiten denean. Biztanlea ez da subjektu pertzeptibo gidatu bat, hipotesi bat da. Besteaz ari gara.

Irudiak sailkatzean hiru kategoria horietan arrazoitzen den bereizketa bat proposatzen bada ere, hiru presentziak batzen dituelako aukeratu da tesiaren azaleko irudia:



Peter Smithson-ek 1990ean berreraiki zen “Patio and Pavilion” instalazioan egiten duen argazkian honako hauek adierazten dira: Alison-ek orekarako erabiltzen duen eraiketa da pabiloia, eta hori inguratzen duen patio metalikoa, islada edo irudi bezala proposatzen dute. Begiratuko duen bisitariak muntaiaren espazioa espazio piktoriko gisa jasoko du. Isladak begiraleari bere burua biztanle bezala ere itzuliko dio. Isladen jokoari esker, aldi berean begirale eta biztanle den subjektu horrek egiten duen argazkian, hiru presentziak adierazten dira:

begiralearen presentzia / Nia
egilearen presentzia / Arkitektoa
biztanlearen presentzia / Bestea

Tesiaren ekarpena arkitektoen adierazpen grafikoak sailkatzeko erabiltzen den egituran dago, eta irudiek begiralearekin eraikitzen duten harremanetik eratortzen da: lehen presentzia koadro plano gaingiditzen duen ilusioak adierazten du; bigarrena plano koadroaren beharrik ez duen erradiografia bat da; hirugarrena plano koadroaren leihotik adierazten da.